

ANIMALIEN BABESERAKO XII. EUSKAL ARDUNALDIAK



Argazkia/Fotografía: Luis Presa

VITORIA-GASTEIZ

2019ko azaroak 25 | 26 | 27

Aldabe Gizarte Etxea (Arriagako Atea 1) | 20:00etan

Babeslea



Antolatzailea



ANIMALIEN BABESERAKO XII. EUSKAL JARDUNALDIEK tratu txarren aurkako aspektu garrantzitsuenetako bat azpimarratzen dute: legearen erabilera. Araudia xehetasun guztietan ezagutu behar da, tresna gisa erabiltzeko asmoz. Edizio honetan ikasi egingo dugu zenbait adibide aipatu zentzuan.

LEHENENGO SAIOAn hizlariak begiratuko die bereziki salaketa formal bati ekiten zaionean kontuan hartu beharreko egintzarik oinarrienei: frogen sendotasuna. Izan ere, bakarrik honen bidez eduki dezakegu nolabaiteko itxaropena auziak aurrera atera daitezen, salaketa ugarik horrexegatik porrot egiten dutela jakinda..

Familia bat banandu ostean, argi dirudi alde guztiek pairatu egiten dutela egoera latz berria: baita animaliek ere, sarritan ahazturiko biktimak direlarik. Nork darama txakurra? Esan daiteke benetan «partekatutako zaintza» protagonistak katuak izanik? Honen guztiaren gainean hitzegiteko prest dugu **BIGARREN SAIOA**n abokatu gazte bat, berak ausnartu egin bait du sakonki animalien ongizatean datzan errealitate honi buruz.

HIRUGARREN SAIOAk Arabako Fiskaltzako Igurumen eta Hirigintzako Fiskal Delegatua dakarkigu, bere eskumenen artean animaliekiko tratu txarrak dituen. Honek esango digu nola ikusten duen Espainiar Kode Penalak aipatu esparrua XXI. mendean gaudela. Eta, bide batez, oinarrizko tresna juridiko honetatik atera dezakegunari buruzko jakintza pertsonala luzatuko digu.

Garai berriak bizitzen ditugu, eta eredu moral zaharretariko batzuk izugarri azkar aldatzen ari dira. Beraz, *Animalien Auzia* deritzona ezin da atzean geratu bidaia honetan. Horrexegatik jarraitzen dugu pentsatzen *Jardunaldi* hauen funtsezko ezaugarria, beste edozeinen gainetik, eremu didaktiko eta eraikitzailetik aldi berean datorrela: elkarren arteko ideien eta iritzien trukaketa, azken finean.

azaroak 25, astelehena

ANIMALIEI TRATU TXARRENGATIKO ELKARTE BABESLEEN AKUSAZIO POPULARRA. FROGEN GARRANTZIA

MARÍA EUGENIA SUÁREZ-ALBA AZANZA

Abokatua. APASOS VITORIA eta ATEA elkarteetarako animalien defendatzailea auzietan.

“Animaliak ahulenen artean ahulenak direla esan genezake, beren zoritxarrerako. Baina, aldi berean, haiekiko sentsibiltatea haunditzen doa egunez egun, askotan elkarte babesleen bidez. Erakunde hauek prozedimendu judizialen zati guztietan (ikerketan, instrukzioan) hartzen dute parte, Ministerio Fiskalaren akusazioari sostengua emanez auzian bertan. Baina dena hutsean gera daiteke froga sendorik ezaren aurrean, animaliak konfiskatzea ere ekiditen duena.

Horrexegatik behar-beharrezkoa ageri zaigu edozein pertsona deklaratzeko prest egotea animaliei eragindako tratu txarren bat ikustekotan. Izan ere, lekukoak prozedimenduari eman ahal dio material grafikoa (argazkiak, bideoak), eta baita biktima albaitariarenera eraman dezake ere, honek dituen zauriak baieztatzeko asmoz, eta zergatik gerta litezkeen.

Beraz, esan dezagun argi eta garbi: biktima animalia denean, egin behar dugu pertsonen kontrako tratu txarren lekuko izango bagina bezala!”



azaroak 26, asteartea

ZER GERTATZEN DA FAMILIAREN ANIMALIEKIN AUZI JUDIZIALEN OSTEAN?

LAURA CIORDIA MTZ. DE MARIGORTA

Abokatua eta enpresaria

“Gaur dibortzio edota ezkontza-hausteengatiko animalien zaintza eta babes juridiko sendorik ez dagoen arren, argi dago gero eta tribunal gehiagok honelako kasuak onartzen dituztela. Eta gizarte osoa dabil bilakaera horretan, zorionez. Esan genezake hori bezalako lanabes juridiko batez baliatuz, abandonu egoera ugari ez litzatekeela gertatuko, funsgabeko sufrimendu galanta sahiestuta. Baina berau suerta dadin, behin-betirako aldatzea lortu egin behar dugu araudi batzuk: *Kode Zibila* eta *Hipoteka Legea*. Egia esan, aipatu araudien aldaketa lortuz gero, animaliek (azkenean!) erakutsiko lukete «izaki sentikorrak» merezitako kategoria.

Ni neu baikor sentitzen naiz esparru honi dagokionez, batez ere lantzen ari den *2019ko martxoaren 1eko Lege-Proposamenari* ezker.



Azaroak 27, asteazkena

ANIMALIEKIKO TRATU TXARRAK ETA ZIGORRAK: ANIMALIAK EDUKITZEAREN DEBEKUA

ANDREA SUÁREZ SÁNCHEZ-ANDRADE

Arabako Fiskaltzako Ingurumen eta Hirigintza arloko Fiskal Delegatua

“Egun, tribunal askok bideratu edota zigortu egiten dituzte animaliei eragindako erasoak. Honela izanda, tratu txarrak ematearen erantzuleen aurkako erabaki judizialak goraka doaz. Eta hau etxeko animalien heriotzen kasuetan ez ezik, zauriak pairatu dituztenen edota abandonatuak izan direnen kasuetan ere, honelako delituetan biktima hiltzeko arrisku bizian egon delarik.

Errudunei ezarritako zigorrak joan daitezke diru-isunetik kartzelaratzera (berau bakarrik akusatua baldin eta bererorlea bada). Gainera, animaliaaren zaintza kentzearen zigorra gehi dakion egoera larrietan. Hain zuzen ere, hauxe dugu helburu nagusietako bat fiskal espezializatuok zein abokatu animalistok, beti lortzen ez den kontua delako, tamalez. Hala balitz, paregabeko lorpen baten aurrean ginateke, dudarik gabe, behin orokorrean animaliak edukitzea debekatuta, eta beraiekin loturiko ogibideetan jardutea ere.”

